

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, otsailak 24



## Mozorrotu eta juergara!!

*Zure jaunartze argazkietarako*

# KIÑU

TXANDA HAR EZAZU

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



# TXURINGO



## Jatetxea

OSINTXU ☎ 76 48 63


**ZATOZ GURE BODEGAN  
DAUKAGUN SAGARDO ETA  
ARDO KUPELAK PROBATZERA.**

**HONEKIN BATERA,  
SAGARDOTEGIKO MENUA  
DASTATZEKO AUKERA  
IZANGO DUZU!!**

### SAGARDOTEGI MENUA

- Makailau tortila
- Txuletak, txarrikumea,  
arkumea...
- Gazta eta intxaurreak

## 95erako IKASLEENTZAKO KANPAINA ABANTAILAK BISTAN



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

**7.700 pzta.**

### ZATOZ ETA IKUS

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera,  
otsailean zehar aparteko eskaintza  
egiten dizugu euskarri nahiz kristaletan  
eta gainera prezio paregabean



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

**7.700 pzta.**

### ZAINDU BEGIAK, IKUSIKO DUZU ALDEA

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, ikusmenaren  
miaketa osoa egingo dizugu. Eta gainera, irabazten  
irtengo zara OPTICOS ASOCIADOSekoen  
profesionaltasun eta garantiarekin.



GIPUZKOAKO OPTICOS ASOCIADOS

**P. Manso**  
optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
4970 Bergara  
Ttmoa eta Faxes: 76 03 97

**Argitaratzailea:**  
JARDUN Elkarteak.  
Mesterreka, 13 Bergara.  
Ttmoa eta Faxes: 76 08 19

**Zuzendaria:**  
Gorka Elorza

**Eredakzioa:**  
Eneko Azkarate  
Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezibar

**Maketazioa:**  
Eneko Azkarate  
Eduardo Mendibil

**Publizitatea:**  
Alex Azkarate

**Harpidetzak:**  
Gorka Elorza

**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola  
Maripi Laskurain  
Alex Labaien

**Eredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkoroberezibar  
Estepan Plazaola  
Alex Labaien  
Itzi Ezaña

**Komikiak:**  
Bitor Rodriguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Jose Martin Ezenarro  
Julian Ezenarro  
Alex Ugalde  
Unai Azkarate

**Banaketa:**  
Txantxangorri taldea

**Tirada:**  
3.800 ale.

**Inprimategia:**  
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Lege gordailua:**  
SS 50/91

**ISSN:**  
1130-8599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritziak eta iritziaren erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## JOXU ARANA

### Jardun Elkarteko dinamizatzailea

- Zein harrera izan du "Euskal abizenak euskal grafiaz" kanpainak?

- Ona, nahiz eta oraindik jende asko geratu den abizena aldatzeke. Guztira, 233 eskakizun jaso ditugu eta 104 abizenen grafia aldatzeko eskatu digute. Abizen errepikatuenak Lazkano, Laskurain eta Agirre izan dira. Dena den, nahiz eta kanpaina urtarrilaren 31n amaitu, Jardun Elkartek urte osoan jarraituko du zerbitzu hori eskeintzen.

- Noiz jaso ahal izango dira lehen emaitzak?

- Hori Madrilen daukaten interesaren arabera izango da. Ez dakigu zehatz mehatz noiz jaso ahal izango ditugun. Baita 4 hilabete edo



gehiago izatea. Orain hasten da lanik zailena; talde bat ari da Udaletxeko jaiotze eta errolatze agiriak eta Euskaltzaindikoa aztertzen. Eskakizun guztiak ordenatu eta bakoitzari dagokion dokumentazioa jarri behar zaio. Oraingoz 39 eskakizun osorik beteta daude eta Epaitegian sinatzea eta Madrilerara bidaltzea besterik ez da falta.

**"Euskal abizenen kanpaina guztira 233 eskakizun (104 abizenenak) jaso ditugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Udaletxearen inguruko erakusketa martxoaren 3tik 31era

Bergarako Udaletxearen historiari buruzko erakusketa egongo da ikusgai martxoaren 3tik 31era bitartean Udaletxeko Pleno Aretoan. Bertan Bergara hiribilduaren sorrera, udaletxe ezberdinak (izandako obren ondorioz 3 bereiztu daitezke), Udaletxearen zertarako eta oraingo berritze eta haunditze lanak azalduko dira. Lehiaketa publikoa egin ondoren, Maria Garay Eibarko kultur zerbitzu enpresari adjudikatu zitzaion erakusketaren antolatzea. Enpresa honek panelak, bideoak edota Udaletxean erabili izan diren tresna historikoak (bertan egindako funtzioen adierazgarri gisara) jarriko ditu ikusgai. Aurrekontua 3 milioi ingurukoa da.

E S A N  
D U T E

"Arraina eta barazkiak dira ikasleek gutxien jaten dituzten elikagaiak. Aldiz, pasta, arroza, haragia eta gozokiak dira gehien kontsumitzen dituztenak"

**ARANTZA HERNANDEZ**  
Elikaduran aditua  
IKASTOLA

"Euskadin sukaldari bikainak ditugu eta kontsumitzaileak oso jakitunak dira. Baina, horrez gain, primerako lehengaiak ere baditugu, produkzioa txikia izan arren"

**GERMAN MURUAMENDIARAZ**  
Jaurlaritzako elikadura industria eta politikako zuzendaria  
EL CORREO

"Herri guztiaren ordezkari izan nahi nuke. Beti ere HBk orokorrean dituen helburuak defendituz, baina herriko beharrei erantzunez, hasi plazatik eta Angiozarko puntaraino"

**MAITE ARISTEGI**  
HBren alkategaia  
EGIN



**EL GRAN SALTO**  
(The Hudsucker Proxy)

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



**JUEGO MORTAL**  
Ostirala: 22.30.



**PASSION FISH**  
Osteguna: 20.00.

**Zinea**

▼▼ **Coen** anaien (*Muerte entre las flores, Sangre fácil, Barton Fink*) azken filme hau iazko Canneseko Zine Jaialdian aurkeztu zen. **Norville Barnes (Tim Robbins)** hutsetik hasi eta *Hudsucker* enpresako buru izatera iritsiko da **Sidney J. Mussburgeren (Paul Newman)** laguntzaz. Baina igoera azkarra izan bazen amiltzea azkarragoa izango zen. **Coen** anaien umore beltza nagusi.

▼▼ **John Flynn** zuzendari iparamerikarrak amesgaizto bat proposatzen digu beldurrezko filme honetan. **Edward Furlong (Terminator 2)** eta **Frank Langella** aktoreek infernurako bidaia interaktibo bat egingo dute. Bertan, errealitate birtualeko hilketak benetakoak izan daitezke. Kontuz beraz...

▼▼ **John Saylese** idatzi eta zuzendutako filme honek bi nominazio izan zituen 1993ko *oscar*etan, aktorea onena (**Mary McDonell**) eta gidoi onenarena (**Sayles**) alegia. Telebistako izarretako bat den **May-Alice (McDonell)** istripu larri bat izango du eta, **Chantelle (Alfre Woodard)** erizainaren laguntzaz, Luisianan lasaitasuna aurkituko du.

**Deiak**

▼ **Frida Kahlo.** Beart elkarreak antolatuta, astelehenean, otsailak 27, Frida Kahlo pintore mexikarraren (1907-1954) bizitza eta lanari buruzko bideo emanaldia 19etan Kultur Etxean.


▼ **Erakusketa.** Karnabaletako Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak Kultur Etxean. Larunbatean 12etatik ordubietara eta, astelehetik ostiralera, 6etatik 9etara.

▼ **Manu Muniategi**ren margo erakusketa Elorrioko Arriola Kultur Aretoan otsailaren 28ra arte.

▼ **Argazki Lehiaketa.** Emakumearen inguruko argazki lehiaketa. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean amaituko da. Argibide gehiago Udaleko Gizarte Zerbitzuan.

**Ogia**

▼ **Igandea 26:** Ogizun.




**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 24:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Larunbata 25:** Camacho/Irizar.
- ▼ **Igandea 26:** Camacho/Amezua.
- ▼ **Astelehena 27:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 28:** Guallar/Morales.
- ▼ **Asteazkena 1:** Estella.
- ▼ **Osteguna 2:** Mozos.

**BOLSOS BERGARA, S.L.**

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

# Karnabal, karnabal...

**Aratuzteak** urteko jairik alaitsuenetarikoak heldu zaizkigu Bergarara. Udalak programa zabala prestatu du larunbatetik asteartera bitartean eta adin guztientzako ekitaldiak izango dira. Bihar larunbata, esaterako, haur jolasak, buruhaundi eta erraldoiak, Xamatzekin dantzak, La Cubana Tropicalen dantzaldia edota kamareroen lasterketa iragarri dira. Igandean, berriz, eguerdiko 12.30etan Udal Musika Bandaren kontzertua izango da. Alfredo Glez. Chirlaque-ren zuzendaritzapean Bandak honako lan hauek eskeiniko ditu: *Mercury* (Gran Marcha, J. V. der Roost), *Cándida* (Obertura, L. Bernstein), *El lago de los cisnes* (Ballet, P. Tchaikowsky), *American graphity* (Selekzioa, N. Iwai) eta *Ibauteriako dantzak* (herrikoia). Karnabaletako kontzertuan ohizkoa izaten denez, amaieran sorpresatxo bat izango da. Igandé arratsaldean karaoke eta diskoteka egongo da Plazan arratsaldeko 5 terdietatik aurrera.

## Karnabal martitzena

Asteartean, arratsaldeko 4retatik aurrera Musika Eskolako txarangaren

## Ekitaldi ugari karnabal zapatu, domeka eta martitzenean



Mozorroa jantzi eta kalera irtengo gara aurten ere.

kalejira eta ondoren, 5etan, Bedelkarrek antolatutako mozorro jantzien lehiaketa egingo da. Hiru kategoria bereiztuko dira: 6 urtera arte, 6 urtetik 10 urtera eta 10 urtetik 14ra bitartekoak. Kategoria bakoitzeko 3 sari egongo dira eta nagusien talde onenak ere saria eskuratuko du.

Astearte gauean Belea Band taldearekin dantzaldia izango da eta karnabalei amaiera emateko ohizko sardinaren entierroa egingo da gauerdian.

Bestalde, Kultur Etxean ikusgai daude Aratuzteetako Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak. Gogora dezagun 13 lan aurkeztu zirela eta irabazlea Elena Reifs 23 urteko bergararra izan zela. Elena Reifs Arte Ederretan lizentziatua da eta sari modura 50.000 pezeta eskuratu zituen. Berak azaldu digunez, "karnabaletako jai-giroa adierazten saiatu naiz eta horretarako kolore biziak erabili ditut". Saritutako kartela eta besteak ikusgai beraz.

## egitaraua

### LARUNBATA 25

**17.30:**

Haur jolasak San Martin plazan Aske taldearekin.

**19.00:**

Buruhaundi eta erraldoien kalejira, Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzaineroek alaituta.

**19.30:**

Xamatz dantza taldearen kalejira eta Luzaideko dantzen agerpena.

**23.30:**

Dantzaldia "La Cubana Tropical" orkestrarekin.

**01.00:**

Kamareroen lasterketa.

### IGANDEA 26

**12.30:**

Aratuzteetako kontzertua Udal Musika Bandak emana, Novedadesen.

**17.30:**

Karaoke eta diskoteka San Martin plazan.

### ASTEARTEA 28

**16.00:**

Musika Eskolako txarangaren kalejira.

**17.00:**

Mozorro jantzien lehiaketa San Martin plazan.

**22.30:**

Dantzaldia Belea Band taldearekin.

**24.00:**

Sardinaren entierroa.

PINTURAS BERGARA

PB

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •  
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

## Intsumisoak

Hilabeteko epe laburrean, hamar bat gazte bergarar epaituak izan behar dute beraien buruak intsumisoak deklaratzegatik. Jarrera hau, gizartean ikuspegi politiko ezberdinetatik nahiko onartua badago ere, oraindik legalki kriminalizatua eta delito bezala kontsideratua agertzen da.

Horregatik, Ipintza Institutuko irakasleok, berriro ere (gehiago egon dira eta), gazte guzti hauekiko elkartasuna adierazi nahi dugu, eskubide hau onartua izan dadin. Eta gure politikoei, behar diren aldaketa guztiei aurre egin diezaieten eskatzen diegu, eta era berean, epaileei delito bezala ez ikustea aukera pertsonala den hau.

Honekin batera, bai gure ikasleei, bai talde antimilitaristei adierazi nahi diegu ez dugula uste Ertainetako Ikastetxeetan behin eta berriro konbokatzen diren greba ihardunaldiak bide egokia denik gauza hauek konpon daitezten.

### IPINTZA INSTITUTUKO IRAKASLEAK

## Katalanei eskerrak

Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea onartu dute PSOE eta CIUk. Epaileek gaztelaniaz gain beste hizkun-

tza ofizialak ere jakin ditzatela eskatu dute katalanek eta hori aintzat hartzea lortu dute. Ez da derrigorrezkoa izango baina meritua izango da.

Baina denak ez omen daude aldaketa horrekin gustora. PPK ezin omen du tragatu inori gaztelaniaz aparte beste hizkuntzarik eskatzea.

PPri gehiago gustatuko zaio gurea moduko egoera, Bergarakoa modukoa: herritarren %70a euskalduna izan eta Epaitegian herri hori zerbitzeko jarritako langileetatik ia inork ere euskaraz ez jakitea.

Orain dela gutxi joan behar izan nuen Epaitegira arazo baten inguruan deklaratzera. Gutuna bidali nien aurrez, euskaraz deklaratzeko asmoa nuela adierazteko. Eguna etorri, bertara joan eta "ai! si, ya recibimos una carta pero no hemos hecho nada... y ahora para buscar un interprete...".

Horren aurrean bi aukera: edo hurrengo egun batean bueltatu edo erdaraz egin. Hurrengo egunean joango nintzela. Hurrengo egunean joan eta han zegoen horretaraxe bakarrik Donostiatik etorritako itzultzailea. Hara nolako panorama: galderak erdaraz bakarrik idatzita zeuden, itzultzaileak irakurri eta niri euskarara itzultzen zizkidan; nik erantzun eta gero itzultzaileak deklarazioak jasotzen ziharduen administrariari erdarara itzuli behar. Gero, nik euskaraz egindako deklarazioak han nituen erdaraz. Nahi

banuen hala firmatu edo bestela hurrengo egunera arte edo noizbaitera arte itxoin haiek itzul zitzaizkion. Eta hori guztia zergatik eta epaitegian deklarazioak hartu behar zizkidan administrariak euskaraz tutik ere ez zekielako. Baina norbaitek esango dizu euskaraz jakitea baino inportanteagoa dela profesional ona izatea. Profesional ona ote da herritarra joan eta atenditzeko hurrengo egunerarte itxoin eragiten diona eta gero ere laguntzailea behar duena. Eta euskara dela eta administrazioan gastatzen diren diruengatik kexatuko zaizkizu. Ez ote litzateke dirua aurreratzeko sistema ona Epaitegian euskaraz tutik ez dakiten pertsona horien orde euskaraz dakiena jartzea, ehundakak daude eta.



Pujolek garbi esan du: hizkuntza eguneroko bizitzan defendatu behar da. Eta katalanek esan eta egin egingo dute. Eta horregatik, guri baino errespetu gehixeago diete.

Espero dezagun, katalanei esker eta beren eredia jarraituaz, noizbait euskaldunok ere ez dugula Epaitegietan euskaraz jarduteko horrenbeste kalamidade igaro beharko.

E. P. O.

NAN: 72.569.475

## Tiira biraka



## UNAI AZKARATE

# Herri Batasuna Maltzaga-Urbina autopistaren kontra azaldu da

Bergarako Herri Batasunak Maltzaga-Urbina autopistaren kontrako iritzia azaldu zuen asteazkeneko prentsaurrean. Jesus Mari Garitanok eta Aitor Aranzabalek adierazi zutenenez, "autopistak ez ditu bailarako trafiko arazoak konpontzen, herritik herrira joateko edota bailara irteeran dauden arazoak alegia. Horrez gain, autopistak kalte konponezinak eragingo ditu ingurugiroan, paisaian eta baita Ondare Artistikoan ere".

Beren ustetan, Leintz-Gatzagako biztanleek landutako proiektua askoz hobea da. "Gaur egungo errepidean aldaketa sakinak egitea proposatzen du: Arrasate eta Bergara artean lau karril egitea, Arlabanen beste horrenbeste, 3 karril Osintxun, Sorraluzen... Kontutan izan egunean, batatz beste, 11.000 kotxe pasatzen badira Maltzagatik, horietatik 5.000 bakarrik beltzen direla Arlabanera. Prezioan ere bada aldea: autopistak 100.000 milioi inguruko aurrekontua du eta Gatzagako proiektuak, berriz, 12.000".

Autopistak gure herrian izango lukeen eraginari dagokionez, "Amilaga eta Epele artean kalteak nabariak izango lirateke:



Jesus Mari Garitano eta Aitor Aranzabal asteazkeneko prentsaurrean.

San Martzialetik pasatuko den tunelaren eraginez Errota Erdikoa baserria biadukto baten azpian geratuko litzateke, beste lau baserri (Askatzu Gai-nekoa, Lamariano Dorrea, Supide eta Aldeta Azpikoa) autopistatik 70-190 m.ra, San Martzial ermita 50 m.ra.... Ingurugiroan eragin nabaria izango luke. Iberduero gainean autopistaren irteera bat egiteko asmoa dago eta kalteak haundiak dira".

Debasako Maltzaga-Urbina aurreproiektua gure herrian ikusgai dagoen bitartean, Leintz Gatzagako proposamenarekin gauza bera egiteko eskatu zion HBk Udalari baina oraindik erantzunaren zai

direla salatu zuten Garitanok eta Aranzabalek. Beren hitzetan, "gaizki ikusten dugu oneritzi sozial gehien jaso duen proiektua bazterzea".

Bestalde, larunbatean HBkoen Herri Asanblada egin zen Oldartzen eta Iratzar proiektuen gainean. Botazioan Oldartzenen alde %72a azaldu zen eta Iratzaren alde, berriz, %28a. Aldi berean, Maite Aristegi HBko udal zerrendaren buru aurkeztu zen eta azkenik "Hartu bitza" izeneko kanpaina ezagutarazi zen. Herrian buzoneatuko den inkesta honen bidez HBren udal taldeari buruzko iritzi eta proposamenak eman ahal izango dituzte interesatuek.

## ◆ Haurrentzako bideoa

JARDUNek antolatuta, bihar larunbata goizeko 11etan "Willow" haurrentzako bideo emanaldia izango da Kultur Etxean.

## ◆ Gaztetxeko materiala

Udalak epe berri bat eman die Gaztetxeko arduradunei udal lokaletan gordeta dauden Gaztetxeko materialak erretiratzeko. Uztaila amaierara arte bertan izango dira.

## ◆ Ikastaroa

UNEDek "Geografian, Ingurunean eta Lurralde-antolaketan, Geografiako sinformazio sisteman aplikazioak" ikastaroa iragarri du apirilaren 4tik maiatzaren 6ra.

## JAIOTAKOAK

**Uxue Olaziregi Alberdi**

Otsailak 13

**Iosu Fernández Lasheras**

Otsailak 14

**Amaia Igartua Ugalde**

Otsailak 20

## HILDAKOAK

**Alberto Ezpeleta Gutiérrez**

Otsailak 15, 64 urte

**Raquel Gómez Acebo**

Otsailak 18

**Carmen Agirrebeña Arriaran**

Otsailak 18, 67 urte

**Cruz Gallastegi Intxausti**

Otsailak 19, 75 urte

# MEMESA



ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

### ◆ Intsumisoen epaiketak

Bergarar intsumisoen kontrako epaiketekin jarraituz, hurrengo epaiketak ondorengo intsumisoenak izango dira: Gustavo Abajo (martxoak 2), Josue Lazkano (martxoak 7), Fernando Albeniz (martxoak 14), Fernando Kalboetxeaga (martxoak 15) eta Joseba Balzategi (martxoak 21).

### ◆ Ski irteerak

Pol-Polek Alpeetara ski irteera iragarri du apirilaren 14tik 22ra. Prezioa 46.000 pta. bazkideentzat eta 47.000 gainontzekoentzat. Bertan bidaia autobus-literan, apartamentua eta 6 egunetarako forfaitak Val Thorensen sartzan dira. Asegurua aukerakoa da (1.800 pta.). Bestalde, astebukaera honetarako Formigalera iragarrita zegoen irteera datorren astebukaeran (martxoak 4 eta 5) egingo da. Argibideak 76 48 51 telefonoan.

### ◆ Jubilatuen eskurtsioa


Jubilatuek Santillana del Mar-era (Kantabria) eskurtsioa egingo dute martxoaren 14an. Irteera goizeko 8etan izango da, 14.30etan bazkaria Torrelavegan eta 18.30etan itzulera. Prezioa: 1.300 pta. (plaza mugatuak).

### ◆ Xake txapelketa

Xake Txapelketa jokatu da Etxagi tabernan martxoaren 6tik aurrera. Izen-ematea (doan) bertan egin daiteke.

### ◆ Moto konzentrazioa

Moto konzentrazioa izango da astebukaera honetan Elgetan. Bihar arratsaldeko 4retan zabalduko da izen-ematea.



Hondatuta dauden jolastoki zaharrak kendu eta berriak jartzeko 13 milioi pzta. bideratuko dira.

## 7 jolastoki berri jarriko dira herriko hainbat tokitan

*Haritza eta pagoa landatuko dira San Juanen*

Udalbatzak herriko hainbat tokitan haurrentzako jolastokiak jartzeko baldintza pleguak onartu zituen joan zen asteleheneko Osoko Bilkuran. EAJ, HB eta PSE-EEren aldeko botuekin eta EAren abstentzioarekin, Angiozar, Zabalotegi, Espoloia, Matxiategi, Bolu, Martokua eta Osintxun jolastokiak jartzeko 13 milioi pzta.ko aurrekontua onartu zen. Jolastokiak jartzeko obra enpresa bati adjudikatuko zaio.

Une honetan kalean dauden jolastokiak egoera kaskarrean daudenez berriak jartzeko erabakia hartu du Udalak eta apiril bukaerarako edo martxan izango dira berriak.

Bestalde, San Juan auzoan, Gaztaña-Zabal eta Lindara lursailetan, zuhaitz autoktonoak landatzeko erabakia hartu zen. Gogoratuko denez,

Udaleko Nekazal Injineru Teknikoak egindako txostenean jasotzen ziren erizpideei jarraituz, Udalbatzak insignis piñua eta douglas izeiak landatzeko 2.336.340 pzta.ko aurrekontua onartu zuen orain dela hilabete batzuk. Landaketa lanak *Euria S.C.* enpresari adjudikatu zizkion. Baina, Mendia Bizirik, Eguzki, HB eta EHNEK, insignis eta douglasen ordez landara ostozabalak landatzeko eskaera egin zuten. Hirigintza, obra eta Ingurugiro Batzorde Informatzaileak idatzi hori aintzakotzat hartu eta zuhaitz autoktonoak landatzea erabaki zuen. EAJ, HB eta EAren aldeko botuekin eta PSE-EEren abstentzioarekin, baldintza pleguak aldatzea eta hasierako presupuestoari 350.000 pzta. gehitzea erabaki zen asteleheneko Plenoan.



**zumelaga**  
JATETXEA

**IGANDETAN ZABALIK!!**

San Antonio, 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09



# BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA  
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)



**SAN MARTIN DE AGIRRE**  
ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte.



**MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA**  
IEE (REM) BATXILERGO TEKNIKOAK,  
LANBIDE HEZIKETA MODULOAK. 14-19 urte.



**IPINTZA INSTITUTUA**  
BBB (BUP) eta UBI (COU). 14-18 urte.



**ANGIOZARKO ESKOLA**  
ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte.

**MATRIKULA  
DOAN!!**

• **D, B eta A EREDUAK:**

**D** DENA EUSKARAZ / **B** ELEBIDUNA / **A** GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUTA:**

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUA ETA HORNITUA:**

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

**AUREMATRIKULATZEKO EPEA:**

**SAN MARTIN IKASTETXEA:** MARTXOAREN 1etik 15era (2 URTEKO GELA, AURRESKOLA, OHO)

**IPINTZA ETA MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAK:** MAIATZAREN 3tik 14ra.


MARTXOAREN 11n SAN MARTIN IKASTETXEAK ESKOLAKO ATEAK IREKIKO DIZKIE GURASOEI ETA KANPOKO JENDEARI IKASTETXEA BARRUTIK EZAGUTU DEZATEN.

**2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA**

# Kultura:

## Herriko taldeen lokalak aztergai

**Bergarako Udalarenak diren hainbat lokaletan daude sakabanaturik herriko hainbat talde kultural. Datozen egunetan Udaletik lokalen egoera eta taldeek dituzten premiak aztertuko dituzte. Hurrengo orrietan gure herrian kultur taldeek zenbat lokal dituzten eta ze egoeratan dauden jakingo duzue.**



Txapa Irratiko estudioak beste lokal batetara pasatuko dira aurki.

**E**dozein kultur taldek Udaletik lokalen bat lortu nahi baldin badu Kultura Zerbitzura jo behar du.

Eskaria aztertu eta Kultura Batzordeak lokala utzi ala ez erabakitzen du eta lokala eman ez gero hartzaileak konprometuz batzuk bete behar ditu. "Karnabalen ondoren lokal guztien inbentarioa egin behar dugu, ze

egoeratan aurkitzen diren jakiteko. Beste aldeetik gaur egun lokalak okupatzen dituztenekin egongo gara euren asmoak jakiteko kontratu bat sinatzeko eta gauzak legalizatu eta arazorik ez izateko" adierazi digu Luis Abajo kultura zinegotziak.

Talde batek lokala eskuratzen duenean bere mantenimenduaz ardura-

tu beharko du. Udalak berrikuntzaren bat egin behar duenean materiala uzten die eta eurak arduratu behar dira gauzak konpondu edo egokitzeaz. Halere lokal bat eskuratzeko orduan lokalaren baldintzak, taldearen eskakizunei erantzuteko adinakoak diren aztertzen dute lehenbizi. "Edozein talde ezin da edozein lokaletan sartu,

ondo aztertu behar da hori. Batez ere Rock taldeen kasuan, horiek ezin daitezke edozein tokitan sartu. Alde horretatik izan ditugu arazoak, batez ere piszinetako lokaletan kexak izan baitira. Ermuan, esate baterako, badago pabiloi bandi bat eta han talde guztiak elkarrekin aritzen dira" esan digu Abajok.

### Talde kulturalak bateratzeko asmoa

Udalak talde kulturaleri eskeintzen dizkien lokalak herriañ zehar sakabanaturik daude eta Abajok esan digunez Irizar jauregitik Udaletxera trasteak pasatzen dituztenean, eta hara liburutegia eraman ondoren Errotalde jauregia talde kulturalentzat izan daiteke. "Gure asmoa hori da eta batez ere gazte jendearen premiak aztertu eta konpondu nahi ditugu. Badira talde batzuk egoera txarrean daudenak; lokal batzuk talde batzuentzat handiegiak diren bitartean, beste batzuk txiki gelditu dira. Halaber, lais-

## Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
BERGARA

ter taldeekin bilduko garenenez, dauden premiak jakiteko aukera izango dugu".

Lokalen erabiltzaileek ondo mantentzen dituzte azpiegiturak, baina Kultura zinegotziak adierazi digunez erabilera aldetik sortu dira arazoak. "Lokalak ondo tratatzen dituzte, balere arazorik handienak erabilera aldetik ditugu. Lokal hauek lan egiteko dira eta taldearentzat bakarrik. Ez kanpoko jendea etorri eta jende mordua sartzeko. Hori da eurentzat, taldearentzat. Lan eta entsaiu lokalak dira eta ez ikuskizunak egiteko lokalak".

**Udalaren lokalen errepasoa eta etorkizuna**

Lokalen inbentarioa egingo dute hamar egun barru, baina aurretik Abajok azaldu dizkigu dituzten asmoak. "Taun-Taunek Mizpildin du lokal bat entsaiuak egiteko eta tailerra Gartzela Zabarrean, orain Extension Agraria zegoen tokian utziko dizkiegu tailerrak. Gartzela Zabarra, aldiz, Jardunentzat izango da. Gero Zabalotegin Pol-Pol argazki taldekoek jarrai-

tuko dute eta nabiko ondo daudela uste dut. Bestalde Zubietako eskolako lokala pixka bat insonorizatu dagoen arren, ondo begiratu behar dugu, nabiko eskas baitago. Zabalotegin Txapa Irratia dago eta orain dauden tokia ez dut uste aproposa denik, zulo batean baitaude sartuta eta han duten mugimendurekin are gutxiago. Gero beste talde batzuk ere daude hor Zabalotegin eta begiratu egin behar ko dugu eurekin zer egin. Irizar jauregian Surra irrati zaleak daude eta hauek ere leku gutxirekin daudenez, agindu diegu lokalak libratzen direnean toki egoki bat eurentzat lehengo igerilekuetako tabernan, lau rock talde ari dira eta nabiko arazo izan dugu, jendea kexatu egin baita eta uste dut lokal hori ez dela egokia rock taldeentzat. Martoko eskolak gaur egun libre daude eta gure intenzioa printzipioz BEARTi (Bergarako artisten elkarte) ematea litzateke. Eskaerak baditugu eta egingo dugun inspektioarekin lokal aldetik dauden premiei erantzuten saiatuko gara".

**Karnabalen ondoren lokal guztien inbentarioa egingo du Udalak, lokalak ze egoeratan dauden jakiteko**

**Udalak utzitako lokalak**

LOKALAK	TALDEAK
• Mizpildi .....	Taun-Taun
• Gartzela zaharra ....	Jardun
• Sindikatu zaharra ..	Pol-Pol Argazki Taldea
• Zubietako eskola ..	Euskal Herrian Euskaraz, Kobok, Txalaparta.
• Zabalotegi .....	Txapa Irratia, Musika estudioa, Ibaiak Orkestra, Pintoreak, Suburbia, Xake Taldea, Bota, Simon Arrieta Taldea, Aritzeta, Bergarako Orfeoi, Orfeoi Gazte.
• Irizar Jauregia .....	Surra irratizaleak, Pintoreak, Taila.
• Igerilekuak .....	Fucking What!, Spok, Igeri taldea, Txolarte.
• Kultur Etxea .....	Filatelia, Berrigara, Alkoholiko anonimoak, Senideak, Elkarri.
• Seminarioa .....	Cripta, Jabier Martinez eta taldea, Daxka, Requiem, Tostones, Iñigo Irizar eta taldea, Dr. Noise, Lokatza, Memphis Belle.



Zabalotegiko aretoan herriko abesbatzak entsaiatzeaz gain, hainbat ekitaldi antolatu izan dira. Argazkian, Hiru Trukuren emanaldia.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**Matxiategi  
Elektragintza  
C.B.**

**ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA**

Fleming Dokorea, 5  
☎ 76 19 94

### Irudimena landuz.....

#### ARATUZTEAK

**Aratuzteak dibertigarriak dira  
begira, begira  
bi bailarina**

**Aratuzteetan mozorroak ugari  
begira, begira  
bi Hawaiana.**

**Aratuzteetan jendea pozik dago  
hor, hor  
bi mendi tontor**

**Aratuzteetan festa dago  
hor, hor  
bi pailazo jator.**

*Mario eta Jose Luis. 7. maila.*

#### IHAUTERIAK BAI!!

Kaixo lagunak! Laister ihauteriak iritsiko dira eta denok mozorrotzeko eguna izango da. Baina batzuk, lotsa dutenak, ez dira mozorrotuko. Hala ere herri guztia kalera irtengo da festan ondo pasatzera.

Larunbat arratsaldean joku asko egongo dira: buruhandiak, kalejirak, desfileak, e.a. Gauean, berriz, kontzertua izango da denak dantzatzeko. Jende asko parte hartzen du eta oso giro ona egoten da.

Ni ere gogoz nago egun hori ailegatzeko, festa horiek gustatzen zaizkidalako, eta noski nire mozorroa prestatuta daukat eta espero dut egun hori nire lagunekin oso ondo pasatzea. Asteartean, berriz, San Martin ikastetxean ospatuko ditugu, arratsaldean festa bat antolatuz. Beraz, animatu zaitez mozorrotzera.

Beno lagunak bi egun hauetan ikusiko gara. Agur!!

**Iñaki Alonso 7. maila**

### Zer dira zuretzat.....IHAUTERIAK?



**Samira Achahbar  
9 urte**

*"Festa egiteko, mozorrotzeko, dibertitzeko eta ondo pasatzeko egun batzuk. Ihauterietan nere klasekoak eta ni eskolara joaten gara eta han argazkiak egiten dizkigute eta gero dantzan egiten dugu".*



**Javi Lucena  
9 urte**

*"Karnabalak dibertigarriak dira, denok disfrazatuta gaude eta arratsaldean plazara joaten gara. Gauean ordubiak arte kalean gelditzen naiz dantza egiten".*



**Javi Fernández  
9 urte**

*"Mozorrotzeko egunak, ondo pasatzeko eta mozorrotzen zarenean jendeari bromak egiteko. Nik pentsatzen dut mozorrotzeko eta ondo pasatzeko egunak direla ihauteriak".*



**Rauquel Blanco  
8 urte**

*"Disfrazatzeko eta ondo pasatzeko festak dira karnabalak. Niri lehiaketara aurkeztea gustatuko litzaidake".*

## .....9 galdera motz

**Sabas Igartua San Martin ikastetxeko atezaina ekarri dugu txoko honetara eta interrogatorioa egin diogu.**



**Sabas Igartua atezaina**

- 1 Sabas zein da zure benetako izena?**  
Sabas deitzen naiz.
- 2 Zenbat urte dituzu?**  
59 urte.
- 3 Ezkonduta zaude?**  
Alarguna naiz.
- 4 Noiztik San Martin ikastetxeko atezain?**  
10 urte daramatzat.
- 5 Zeintzuk dira zure lanak eskola honetan?**  
Umeak zaindu.
- 6 Lana aldatuko zenuke. Zer egiteko?**  
Ez. Baina aldatzekotan, aroztegian lan egiteko.
- 7 Zer egiten duzu denbora librean?**  
Txikiteoa.
- 8 Egia da futboleko jokalaria izan zinela?**  
Bai, eta oso ona gainera.
- 9 Zer futbol ekipo gustatzen zaizu gehien?**  
Bilbo.

## ..Txistea



**Alicia Descamps 6. maila**

### MEDIKUARI BISITA

Joaten da gizon bat medikuarengana eta prueba batzuk egiten dizkio. Ondoren, medikuak esten dio:

- Ba zure gaisotasuna ez zait batere gustatzen.

Eta gizonak erantzuten dio:

- Ba barkatu baina ez daukat besterik.



**Susana Gomez 6. maila**


### HIRU DESIO

Gizon beltz bat basamortutik doa eta lanpara batekin topatzen da. Genio bat irtetzen da eta esaten dio:

- Esan hiru desio: Eta gizon beltzak: - Txuria izan nahi dut, ur asko eduki eta ipurdi asko ikusi. Eta genioak komun batean bihurtzen du.

## Jolasean.....

**1. Arrainak saltzen ditu**



**2. Ogia saltzen du**

**3. Fruta saltzailea**

**4. Haragia saltzen du**

# Gurutze grama



**HERRI IRRATIA**  
— RADIO POPULAR —

Garibai, 19 - 20004 DONOSTIA

LOIOLA - 20730 AZPEITIA

# 95eko EZKONGAIK

## DONOSTIA - OM 1.224

**AMBITO APAINKETA ETXEA - Donostia**  
20 ontziko baxera

**BOUTIQUE FUSION - Donostia**  
Amapontekoaren jantzia

**AITZBELTZ - Andoain**  
Zanussi ikuzkailua

**CRISTINA VELASCO "PINKY" - Donostia**  
Andregaiaren soinekoa

**CORTE BLANCO - Donostia**  
Senargaiaren jantzia

**ANITZ - Donostia**  
Andregaiaren loresorta eta Autoaren apainketa

**BIDASOA PORTZELANAK - Irun**  
Portzelanazko erregalua

**ARTETXE HALTZARIAK - Mamut - Oiartzun**  
Max besalkia

**IGELDO MENDIKO HOTELA - Donostia**  
Ezkon- gaua, gosaria, beste gau bat eta gosaria

**TEP BIDAIK - Donostia**  
Mallorcako Palmara ezkon-bidaia.

## LOIOLA - F.M. 99,8

**BAYON - Donostia**  
Andregaiaren jantzia

**TAYLOR - HARRODS - Gasteiz**  
Senargaiaren jantzia

**FOTO IKATZ - Arrasate - Eibar**  
Argazki erreportaia

**ETXEBERRIA ERLOJUTEGI - BITXITEGIA - Bergara**  
Eraztunak eta 13 erresak

**IKER SUKALDE HALTZARIAK - Arrasate**  
Sukaldeko mahai eta aulki bilduma

**CODORNIU**  
Ezkontzarako cava

**MILAR KATEA - Azkoitia - Eibar - Arrasate**  
21 atzeko estereo- telebista

**BERRIAK PERTSIANAK - Eibar**  
Etxerako osagarrien bilduma

**IGELDO MENDIKO HOTELA - Donostia**  
Ezkon-gaua, gosaria, beste gau bat eta gosaria

**OCASO ASEGURUOK - Eibar - Beasain**  
Ezkontzaintzako etxerako eta bizitza aseguruua

**ARKAUZ HALTZARIAK - Aretxabaleta**  
Flex, koltxoi eta xaflazko oinarridun bilduma

**KIMETZ ILEAPAINDEGIA - Azpeitia**  
Ezkontzaien ile apainketak

**BIDASOA PORTZELANAK - Irun**  
Baxera bat

**BASKOTOUR BIDAIK - Arrasate**  
Bidaia eta astebeteko egonaldia Mallorcan

**EZKERRETEGI JATETXEA - Azpeitia**  
8 lagunentzako bazkari edo afaria

1996.eko martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Herri Irratia  
Loiolara edo Donostiara edo bita Azpeitia 26. postapartatura edo Donostia postapartatura ere 1.849.

Senargaia (Izen-deiturak) \_\_\_\_\_ Tef.zka.: \_\_\_\_\_

Pos. kode: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_ Helbidea: \_\_\_\_\_

Andregai (Izen-deiturak): \_\_\_\_\_ Tef.zka.: \_\_\_\_\_

Pos. kode: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_ Helbidea: \_\_\_\_\_

Ezkontza eguna (gutxi gora behera): \_\_\_\_\_

## Osasuna

Oinen prebentzioa  
diabetikoetan

- Diabetikoek arazo gehiago izaten al dituzte oinetan?

- Bai, odolean azukre gehiegi dutenez, gehiago kostatzen zaie zauriren bat zikratizatzea. Dena den, emango dizkizuedan gomendioak diabetikoentzat erabilgarriagoak bada dira ere, guztiontzat dira egokiak.

- Zer egin behar dugu, beraz, oinetan arazorik ez izateko?

- Bueno, lehenbizi, garbiketari dagokionez, oinak egunero garbitzea eskatzen da. Urak tenperatura egoki bat izan behar du, 37 °C baino baxuagoa eta ez da komeni garbiketarako krinezko guanteak edota zepillo gogorak erabiltzea. Era berean, behatz artean arduraz berezia jarri behar dugu.

Sikatzeari dagokionez, berriz, toaila suabe edota sikadore batekin ondo sikatzea komeni da. Eta, lehen esandakoa, behatz arteak ondo sikatu. Azala suabe mantentzeko hidratanteak ere erabili

daitezke.

- Atzazkalei buruz, zer esango zeniguke?


- Garbiketa egin eta gero moztea komeni da eta horretarako, zauriak ebitatzeko, punta motzeko guraizak erabiltzen ba-



ARANTZAZU AZPIAZU  
(Podologoa)

dira hobe. Mozketa horizontala izan behar da eta ertzak zertxobait limatu behar dira. Atzazkalak gehiegi moztea ere ez da ona izaten.

**"Oinetan zirkulazioa errezteko beti ere paseoak egin, bizikletan ibili edota masaje batzuk ematea ondo etorriko da"**



Toaila suabe batekin behatz arteak ondo sikatu behar dira.

- Oinen onerako beste gomendiorik?

- Bueno galtzetinei eta andreen galtzerdiei ere behar besteko garrantzia eman behar zaie. Sua-beak eta absorbenteak izan behar dira eta horretarako hobe da algodoizkoak izatea. Oinari ondo ajustatuta eraman behar dira, plegatu eta odol zirkulazioa oztopatu ez dezaten. Era berean, egunero aldatu beharra ere azpimarratuko nuke.

- Eta oinetakoei buruz, zer?

- Oinei arnasa hartzen uzten diotenekoak izan behar dira eta larruzkoak badira, oinek eskertuko dute, dudarik ez. Oinetako bigunak eta arinak janzen saiatu behar dugu eta suela autodeslizantea ez da oso lodia izan behar da. Punta oso estuak ere kaltegarriak izaten dira eta atzekaldea, berriz, ajustatua izatea komeni da.

Takoiari dagokionez, gizonetakoetan gehienez 20-25 mm.ko altura eta emakumeetakoetan 30-35 mm. Zirkulazioa errezteko beti ere paseoak egin, bizikletan ibili edota masaje batzuk ematea ondo etorriko da eta oinetan gorritu edota urraturen bat izanez gero, onena lehen bait lehen espezialista batengana joatea da. Hori da guk egiten dugun gomendioa.

**IGARO**

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz, 4 EIBAR


☎ 76 63 42 ARRASATE

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.  
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

**Josefina**

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

# Zein da zure ametsetako disfrazaz? Zertaz mozorrotuko zinateke?



**Juan Carlos Hervás**  
17 urte, ikaslea

Momiaz beharbada. Ez naiz sekula joan eta gustatuko litzaidake. Baina nekeza da eta ez dut uste eroso izango denik...



**Leire Murillo**  
18 urte, ikaslea

Nik Cleopatraz joateko gogoia izan dut beti. Orainarte ez dut aukerarik izan eta gainera nekeza da. Aurten banpiresaz joango naiz.



**Mikel Markiegi**  
10 urte, ikaslea

Tarzan bezala joatea gustatuko litzaidake, asko gustatzen zait. Aurten? Ez dakit zertaz joango nintzatekeen.



**Maite Otaño**  
14 urte, ikaslea

Betidanik eduki dut aintzinako andren antzera joateko ilusioa eta aurten lortu dut disfrazaz. Traje dotore bat eta peluka zuri bat.



**Mikel Lezeta**  
24 urte, langilea

Ba ez naiz sekula mozorrotu. Jai paganoa da eta aintzina egiten ziren sakrifizioak direla eta ez dut ospatzen. Oraindik ere hilketak izaten dira Brasilen...



**Lorea Elizburu**  
19 urte, ikaslea

Neri antzinako damen antzera, Sissi enperatrizaren antzera. Baina horrelako jantzi bat lortzea ia ezinezkoa da.

Sekulakoa aizu!! Orain...

## Casa Aguirre-n

**IKARAĞARRIA!!**

Praken egun bereziak

- co.LEVISonz. .... 3.990 pzta.
- Praka taila solteak ..... 1.500 pzta.
- Bakeroak ..... 2.000 pzta.

ESKAINITZA HONEN  
10 EGUNETARAKO  
BALIO DU





## Aratuzteak

Karnabalak gainean ditugu; niretzako, pertsonalki, urteko jairik gustukoenak -nahiz eta Bergaran San Martzialak eduki, urtarrileko maldak eta otsaileko asperraldiak astintzeko aitzakia baitira.

Sinplekeria iruditu izan zait beti karnabaletako mozerro edo disfrazarekin norberak izan dituen frustrazioak proiektatzen direla esatea; ez dut sinistu izan batek hartza izan nahi duela, edo kafe zaku bat edo gozoki bat edo horrelakorik izan nahi duenik. Karnabala imajinazioaren, buru-argitasunaren eta, zergatik ez, desenfrenuaren jainkoa da; askok eta askok pizteko behar dugun txispa gizakiak horrelakoak baikara., zerbaitetik edo norbaitetik festetan gaudela eta ospatu behar dugula esan beharra daukagu, eta guk agindua betetzen dugu. Ez dago arrazoi filosofikorik topatu beharrik, frustrazioak bideratzeko eta zer arraioagatik disfrazatzen garen jakiteko.

Egia da Bergarako karnabal-ospakizunak berriak direla, baina tradizio guztiek dute beren hasiera; eta seguruenez, 15 urte barru, gaurko umeak hazita daudenean, beste nolabait ulertuko dituzte karnabalak, betidanik bizi izandako jaia izango baitute.

Denok mozerrotuta ikustea espero dut eta, mesedez, ez gastatu dirutza bat jantzietan, hala gertatzen baita zenbait kasutan jai hau guztiz "hortero" bihurtzea. Halako adibiderik ez da falta.

Hortaz, ondo pasa aratuzteak.

**Marta MORAL**



## Estatuaren aurpegia

Azken asteotan, GAL auzia eta korrupzioaren kontuak direla eta hainbeste gauza ikaragarri ikusi eta entzuteko aukera izan dugu hiritar gizajook. Amedoren eskutik Damborenea eta Rafael Vera, besteak beste, espetxeratuak izan dira; Corcuera eta Barrionuevok euren buruak kinka larrian ikusita Garzón epailearen aurka basurdeen legez jo dute: diru bereziei buruz argitasunak ematea ez dela delitua agindu du Auzitegi Gorenak; GAL kasua berriz irekitzea erabaki du Audentzia Nazionalak...

Orain hilabete batzuk horrelakorik inoiz ikusiko ez genuela pentsatzen nuela egia bada, orain gertatzen ari den guztia erabat arrunta dela uste dut. Ez da, ez kasu honetan ezta beste zenbait eskandalotan ere, justiziaren distira errespetatu eta ezta zenbait delitu lotsagarri argitu nahi dena. Garzón epailearen jarrera laudagarria ez da nahiko, hainbeste euskaldunen odolaz zipristinduta dagoen Estatuaren azala garbitzeko, nahiz eta dozena bat polizia-buru, zenbait politiko eta ministro bi espetxeratu. GAL auziaren ostean badira ilunpean eta inpunidade osoz bizi diren zenbait botere eta indar faktiko, eta horietaz inork ez du oraindik ezer esan eta, are gutxiago, horien kontra ezer egin. Galdetu beza Garzón epaileak zer zekiten -eta zer dakiten- GALEko kide eta ekintzetaz CE-SIDeko buruek. Galdetu beza, zer dakiten Zarzuela Jauregiko inteligentzia arduradunek. Begiratu beza, plastikozko eskularruak jantzita, Moncloako komunetan... Guzti hori askotxo litzateke epaile xume batentzat. Estatuaren zerbitzaille fidel batentzat, Estatuak bere aurpegia garbitzeko aukeratu duen pioiarentzat.

Bitartean GALEko zenbait bigarren mailako arduradunek espetxean bota beharko dituzte hilabete batzuk... beti ere osasun arazoak edota familiako eginbeharrak direla, hamabostero baimen bereziak izango dituzte. Eta hemen, Bergarako bi seme hamabost urte bete dituzte espainiar espetxe urrunetan eta inoiz ez diete horrelako "oporrik" eman. Hori da Estatuaren benetazko aurpegia.

**Martin GARITANO**

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

# GISASOLA BURDINAKI DENDA

## "Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

AGENTZIA:  
**J. ELKORO**

Ibargarai, 2 behe  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

ZURICH



UNIBER

HISPANIA



DEBA

**GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behe ☎ 76 21 80-76 06 37


**Ibai garbien alde**

**"Ibaiak eta gu. Ibaiaren osasuna, denon osasuna"**

kanpainari amaiera emateko, **Mendia Bizirik**ek antolatutako landaketa publikoa egin zen larunbatean Deba ibaiertzetan. Guztira 20 bat lagun bildu ziren goizetik Martokuan haltzak eta sahatsak landatzeko eta amaieran 4 basahate bikote askatu zituzten errekan bertan. Espero dezagun basahateak luzaroan egotea gure artean. Mendia Biziriken kanpainaren arrakastaren seinale izango da...



Deba ibaian, Martokua inguruan, libre utzi zituzten basahateak ikus ditzakezue argazkian.



Dani Santosen "Antzuola I" lana, 2. saria zuri beltzean.

**Argakilari saritua**

**Dani Santos** bergarar argazkilaria saritua izan da Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak antolatutako XXII. **Gipuzkoa Trofeoa Nazioarteko Lehiaketan**. Argazkilari euskaldunen artean, Santosek bigarren saria lortu du zuri beltzeko kategorian eta hirugarrena kolorezkoan. Sari modura trofeo bat eskuratu du Dani Santosek. Guztira, 56 herrialdeetako 568 argazkilarik parte hartu dute lehiaketa honetan. Saritutako lanak Donostiako Arkitektura Fakultatean egongo dira ikusgai martxoaren 3ra arte.

**Garnish**  
**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57



**ZAPELAITZ**

**Taberna**

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera  
San Lorenzo, 25 BERGARA

**Agurra**



Ezerre, mesedez

eko ostegunean  
 ubaleko eskulan  
 astaroretan parte  
 hartu izan duten  
 emakumeek  
 omenalditxo bat  
 egin zioten **Justi  
 Asensio** beren  
 kasle ohiari. **Justi  
 Asensio** azken 5  
 urteetan eskulan  
 osoak eman ditu  
 Zerbiztuak  
 antolatutako  
 ikastaroretan.

Ikasleek oraindik gogoratzen dute eta urte hauetan egindako lanagatik eskerrak eman nahi izan zituzkieten; ostegunean plaka oroigarri bat eta lora sorta eder bat eman zioten eta ondoren luntxa izan zuten. Horiek ikasle finak, hori...

**Zertan dihardute ba?**



**Maria Jesus Ugalde** bergarra Capilla Peñafloidak Estatuko hainbat hiriburutan eskeintzen ari duen *"Viento es la dicha de amor"* izenburuko zarzuela barrokoan parte hartzen ari da. Aipatutako zarzuela Madrilen estreinatu zen: musika Jose de Nebrarena da eta libretoa, berriz, Antonio de Zamorarena. Capilla Peñafloidak zarzuela honen diskoa grabatuko du Auvidis diskaetxean eta ziuurren martxoaren 17an Arrasaten izango dira. Ugalde Orfeoiko partaidea eta Musika Eskolako irakaslea da.

**GALi buruz berbetan**

**Iñaki Ibabe** eta **Jose Mari Etxaniz** bergarar presoen omenezko astearén barne, ostegunean GALi buruzko mahai-ingurua izan zen Miguel Altuna Institutuan. Bertan, **Juan Mari Olano** Gestorako partaidea, **Iñaki Egaña** idazlea, **Elena Bartolomé** eta **Kepa Landa** abokatua izan ziren. Omenaldi asteari amaiera emateko igandean manifestazio bat izan zen eta jarraian omenaldia egin zitzaizen Ibabe eta Etxanizen familiartekoei: komunikatu bat irakurri ondoren, plaka bana entregatu zitzaizen eta azkenik Ibaeren telegrama bat irakurri zen.



**Estatuko Terrorismoa Euskal Herriaren aurka**

**76 erahilketa 15 urtetan zehar**

Juan Mari Olano, Iñaki Egaña, Elena Bartolomé eta Kepa Landa joan zen osteguneko berriketaldian.

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

**Tomas Gezalaga**

**ANTZUOLA BERGARA**

- Apaintetarako eta industriadako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatet eta tapizatuak •

**BERGARA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA**

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Uriarte, 8 BERGARA  
 ☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

# Jose Ignacio Garaikoetxea

**Jose Ignacio Garaikoetxeak (48 urte) 20 urte daramatza Agorrosingo futbol zelaia zaintzen. Herriko futbolariak eta Agorrosinera hurbiltzen direnek ere aski ondo ezagutzen dute.**

- Zenbat ordu egunero Agorrosinen?
- 10 bat igual.
- Belar artifiziala ala naturala?
- Naturala.
- Zein belar mota Agorrosinen?
- *Reigresa* (inglesa), kanpo futboletan izaten dena.
- Ondo zaintzeko, zer?
- Nitratoa eta arai botatuta. Eta siku dagoenean ureztatu.
- Euria ala eguzkia?
- Eguzkia.
- Klima aldatzen ari da?
- Bai, orain izotz gutxiago.
- Atletismo pista erabiltzen al da?
- Bai, asko. Jubilatuek gehien.
- Inguruko futbol zelairik politena?
- Mintxeta, Elgoibarrekoa.
- Anoeta ala Atotxa?
- Atotxa.
- Toshack ala Iriarte?
- Iriarte.



*"Agorrosinen 10 bat ordu ematen ditut egunero. Eguzkia nahiago dut euria baino eta inguruko zelaietatik Mintxetarekin geratzen naiz. Gaztelu izan da herriko futbolari onena. Ejerziziorik egiten dudana? Ez"*

- Jokalari teknikoak ala indarrezkoak?
- Teknikoak.
- Bergarak eman duen futbolari onena?
- Gaztelu.
- Entrenatzaile bat?
- Juanjo Arrieta.
- Zein postutan amaituko du Bergarak aurten?
- Seigarren.
- Taldeko jokalaririk onena?
- Maki.
- Herriko jendearekin bakarrik jokatzearen alde?
- Ez, fitxajeak ere bai.
- Ejerziziorik egiten duzu?
- Ez.
- Txikiteoan ibiltzen zara?
- Ezta.
- Pisia zaintzen duzu?
- Bai, orain 103 pisatzen dut.
- Zein ordutan jeiki eta oheratu?
- 7etan jeiki eta 11etan ohera.
- Irratia ala telebista?
- Irratia nahiago.
- Umore onekoa ala txarrekoa?
- Segun...
- Berba egin ala entzun?
- Berba egitea nahiago.
- Binakako pelota finala ikusi zenuen?
- Bai, Zezeaga ondo ibili zen baina nere ustez Unanuek huts egin zuen.
- Kirol mailan zer falta herrian?
- Anexo bat belar artifizialarekin.

*Deco-Textil*

**ZANGITU**

**Etzerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

*Siaska*

**Dena zure  
haurrarentzako**

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39



*Janden*

**AZKEN EGUNAK • AZKEN JAZKIAK**

- Koloretako bakeroak **3.000 pza.**
- Pintzadun prakak **3.995 pza.**
- Alkondara polarrak **3.500 pza.**
- Txamarrak **6.500 eta 7.995**
- Puntzoko txaketak **4.995 pza.**
- Amerikanak **9.995 pza.**
- Gabardinak **12.000 pza.**
- Gonak **3.000 pza.**
- Puntzoko jantzia **5.000 pza.**

Irizar Pasealekua, 1 ☎ 76 20 03

**ETXEBIZITZA**

Pintura-eskultura **estudioa** jartzeko lokala (35 m2) alokatzen da. ☎ 76 42 24.

**Pisua** salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

**Pisua salgai** San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

**Garajea salgai** Torrekuan. ☎ 76 16 68.

**Garajea salgai** Boni Laskurainen. ☎ 76 15 64.

**Baserría salgai** Elosun. ☎ 76 57 24.

**Garajea salgai** Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

**Garajea salgai** Zurradero Ban. ☎ 76 13 93.

**Bi pisu** alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

**Pisu bat** alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

**Pisua salgai** Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

**Garajea salgai** Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27.

**Pisua salgai** Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

**Garajea salgai** prezio onean. ☎ 76 48 08.

**Garajea saltzen** da Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

**DENETARIK**

Musika **bateria** salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

**Soinu beltza** salgai. ☎ 76 59 95.

**Braco** aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

**Strong** bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

**Trialeko** Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

**Lada Niva** (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

**Volkswagen Corrado** kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

**Renault 19** 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

**Ford Fiesta SS-AD** kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

**Reflex Minolta** argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

**Sega Megadriveko** jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Erabili gabeko **kuna** berri bat salgai. Osorik. ☎ 76 08 51.

**Belarritako** bat galdu dut San Lorentzotik Matxiategira bitartean. Familiako oroigarria. ☎ 76 47 85.

**LANA**

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**OHO eta ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Etxebizitzak** garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

**Ingeles** Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

**BBB eta LH** klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

**Etxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

**Matematika** eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

**BBB, UBI** eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

**Etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

**Etxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

**Etxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Matematika** finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

**Ingeles** Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

**Euskarazko** klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**San Martin Osasundegia**

**DERMATOLOGIA**  
UNITATEA  
Garcandia Doktora

**PATOLOGIA DIGESTIBOEN**  
UNITATEA  
Otazua Doktora


**OBSTETRIZIA ETA**  
**GINEKOLOGIA** UNITATEA  
Serrano Doktora

**PSIKOLOGIA**  
UNITATEA  
J.R Fernandez

**ZIRUGIA**  
UNITATEA  
Alberro Doktora

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxe: 76 25 72

# BONOFOTOA



## Anabel Hernandez

**Anabel Hernández**ek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen XVII. mendeko barroko estiloko etxearen izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Mou Dorrea** zen. Beraz, BONOFOTOko 10.000 pezetak **Anabel Hernandez**ei eman dizkiogu oraingo honetan. Zorionak!!

***Non aurkitu dezakegu Bergaran iturri zahar hau?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurrk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	10	6	5	1	0	32	8	
2. Madura	8	6	3	2	1	19	12	
3. Kabia	7	6	3	1	2	25	13	
4. Bildurbarek	6	7	3	0	4	27	30	
5. Bar Canalejas	5	6	2	1	3	18	18	
6. Arloteak	5	6	1	3	2	19	23	
7. Angiozar	5	7	3	1	3	29	36	
8. Ozaeta	5	7	2	1	4	16	24	
9. Ufala	5	6	2	1	3	19	27	
10. Mongatxurra	5	7	2	1	4	17	30	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurrk.	B m u l t z o a
1. Arkupe	12	7	6	0	1	49	21	
2. Usoa	11	8	4	3	1	24	15	
3. Ogizun	10	7	4	2	1	23	13	
4. Etxagi	10	8	5	1	2	38	28	
5. Pagomendi	9	8	4	1	3	25	28	
6. OH Zerezos	8	6	4	0	2	19	17	
7. Revienta	6	7	2	2	3	18	33	
8. Os Jardineiros	3	7	1	1	5	11	31	
9. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	
10. Uve Bikoitza	2	7	1	0	6	16	30	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurrk.	C m u l t z o a
1. Hartu Zamak	12	7	6	0	1	52	12	
2. A Ze Flaxa	12	6	6	0	0	26	12	
3. Etxenagusia	10	6	5	0	1	26	18	
4. Nahik. Hool.	6	7	3	1	3	19	22	
5. Eri	5	6	2	1	3	16	21	
6. Kriterium	4	6	2	0	4	19	18	
7. EH Biterrak	3	6	1	1	4	12	30	
8. Amozkibar	2	6	1	0	5	12	25	
9. Soropotroak	1	6	0	1	5	13	37	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurrk.	D m u l t z o a
1. Ezinleike	11	7	5	1	1	26	19	
2. Kirolzaleak	8	5	4	0	1	32	12	
3. La Juve	7	6	3	1	2	27	35	
4. Nekrofilikos	7	6	3	0	3	30	25	
5. Igandekoak	5	6	2	1	3	40	27	
6. Shaktale	5	5	2	1	2	12	18	
7. Ari Ari	4	6	2	1	3	14	28	
8. Krai	1	7	1	1	5	17	27	
9. Cinst. Bergara	0	6	2	0	4	8	15	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurrk.	E m u l t z o a
1. Txipiron	10	6	4	2	0	26	8	
2. Pikapiedras	8	6	3	2	1	22	22	
3. Los Txupeta	7	5	3	1	1	16	9	
4. Pata Negra	6	5	3	0	2	23	13	
5. Aldoka Maldoka	5	5	1	3	1	21	20	
6. Labegaraieta	5	7	2	1	4	33	32	
7. Patxaran Team	3	6	1	1	4	19	28	
8. Paok San Juan	2	6	0	2	4	11	39	

## emaitzak

Mongatx.-Errotagain .... **2-2**

OH Zerezos-Arkupe ..... **3-6**

Ogizun-Uve Bikoitza .... **3-2**

Amozkibar-A Ze Flaxa . **2-5**

EH Biterrak-Nahik H. .... **2-5**

Kriterium-Etxenag. .... **2-4**

Soropotroak-Hartu Z. ... **1-12**

Kirolzaleak-Ezinleike ... **5-8**

Krai-Igandekoak ..... **5-5**

Shaktale-Nekrofilikos .. **5-6**

C. Bergara-La Juve ..... **4-3**

Labegaraieta-Patx. T. ... **10-4**

Los Txupeta-Paok ..... **5-1**

Txipiron-Pikapiedras ... **2-2**

## partiduak

### IGANDEA

#### Barruan

9.00: Mongatxurra-Angiozar

Usoa

10.00: Usoa-Uve Bikoitza

Ozaeta

11.00: Ufala-Ozaeta

Revienta

12.00: Revienta-Arkupe

**Bildurbarek OPEL/LAM**

13.00: Bildurbarek-Errotagain

Arkupe

16.00: Kayak O.J.-OH Zerezos

Arloteak

17.00: Madura-Arloteak

Bar Canalejas

18.00: Kabia-Bar Canalejas

Etxagi

19.00: Pagomendi-Etxagi

Kabia

#### Kanpoan

9.00: Patxaran Team-Txipiron

**Construcciones Bergara**

10.00: Igandekoak-Const. Bergara

Kirolzaleak

11.00: Shaktale-Kirolzaleak

Paok de San Juan

12.00: Paok San Juan-Pata Negra

**Aldoka Maldoka**

13.00: Aldoka-Los Txupeta

Pata Negra

16.00: Eri-EH Biterrak

Soropotroak

17.00: A Ze Flaxa-Soropotroak

Krai

18.00: Krai-Ari Ari

A Ze Flaxa

#### OHARRA:

Beltzez agertzen diren taldeek arbitratuko dituzte partiduak

# Eskuz binakako txapeldun ordea

## Jose Mari Zezeaga

**Astlehenean bertan 33 urte bete zituen Jose Mari Zezeaga pelotariak ezin izan zuen igandean binakako txapela eskuratu. Unanurekin batera, 22 eta 17ko emaitzarekin galdu zuen finala Retegi II.a eta Errandonearen aurka, leporaino beteta zegoen Donostiako Anoeta pelotalekuan.**

- Faborito nagusiak izan arren, ezin izan zenuten Retegi eta Errandonea menperatu...

- Beno bai. Biak % 100era jokatuta igual gu pixkat gehiago izango gara baina partidu batera diferentea izaten da: jokuak baino esperientziak inportantzia gehiago izaten du eta guk kale egin genuen domekan alde horretatik. Eurak, berriz, asmatu egin zuten eta Julianek partidua apurtu zuen. Dena den ez zen diferentzia haundirik egon eta azkenean bost tantogatik bakarrik irabazi ziguten.

- Zein izan zen partiduko klabea?

- Beharbada nik atzean garbi ez dominatzea. Partidua nik dominatu

izan banu, Mikel trankilago ibiliko zen, hobeto sartuko zen. Baina ezin izan nuen eta partidua hortik joan zitzaigun nire ustez...


Prentsak ere kale egin duela uste dut. Unanue gaizki jarri dute, ni behintzat ez naute kritikatua baina ez nago horrekin konforme. Nik argi dominatu izan banu Mikelek orduan gehiago egingo zuen.

- Askok sufritu zenuela aipatu zuen Unanuek amaieran...

- Bi hilabete daramatzat justu samar eta oso zaila da partidu osoa aguantatzea. Ezkerrarekin ondo ibili nintzen baina eskubiarekin ezin izan nuen partidua dominatu. Biak oso erasotzailak gara eta defenditzera jokatuta oso nekeza zen partidua geuk eramatea.

- Nola gertatu zenuen finala? Zer egin zenuen bezperan?

- Bezperan betikoa. Korrika eta gimnasia pixka bat egin, besterik ez. Eta egunean bertan, goizago jeiki, 7ak laurden gutxitan, pasio txiki bat eman, gimnasia pixkat egin, oso fuerte gosald



"Partidua dominatu izan banu, Unanue lasaiago ibiliko litzateke".

eta frontoira martxa..., 10ak aldera heldu nintzen. Han beste pelotariekin batera takoak ipini, kontuak esan eta kanpeonatoko gauzak komentatu genituen batez ere partidua hasi aurretik.

- Partidu ostean?

- Guretako oso gogorra izan zen. Besteak oso pozik baina galtzen bazu, berriz, pixkat aparte lagatzen zaituzte. Zenbat eta aguroago hanka egin handik hobe. Prentsaurrekoa eman ondoren, bertan bazkaldu genuen kuadrila batek eta gero herrira buelta. Herriko jendea? Dexente zegoen bai, nonbaitetik jiratu zituzten sarrerak,

betiko jende edadetua eta gazte koadrila bat han zeuden.

- Pertsonaia ospetsu asko ere izan zen partidua ikusten...

- Alde batetik gaizki ikusten dut hori, urtero joaten den jende askok ez baitu sarrerak lortzerik izaten. Tebistan irtetzeko polita geratzen da horrelako jende xelebrea joatea baina ni ez nago horren alde; nire ezagun batzuk ere sekulakoak egin behar izan zituzten sarrerak lortzeko; astero frontoira joaten den jendea zaindu behar da lehenbizi.

- Orain zer? eskuz binakakoa ez omen

# LXUKUN

## BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62  
BERGARA

# Amets



• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak

• Zango erremolkeak

• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI



**duzu jokatuko...**

- Ez zait manomanoan jokatzea gustatzen. Gero zaila da egun batean daukazun guztia ematea. Edadea ere pasatuta daukat ilusio haundi hori edukitzeko. Nire ilusioa ahal den gehien puntakoen artean aguantatzea da. Edaderik egokiena? Egia esan berriak kendu ezkerro gainontzekook antzeko adinean gaude. Igual edade onena 30-33 urte izango da baina hortik gora zaila da neurri altu- an egotea.

Nire asmoa berriro puntuan jarri, eskua deskantsatzen laga eta udako torneoak prestatzen has- tea da. Orain jokatzeko ideia neukan baina aste- azkenean medikuarenga- na noa Frantziara; ez da- kit zenbat denbora egon beharko naizen geldirik.

**- Noiz arte daukazu kontratua Unidasekin?**

- Beste bi urte t'erdira- ko. Beste enpresetako es- kaintzarik? Ez, ez. Gaine- ra ez dut uste mugimen- durik egongo denik. Le- hen bazuten enpresen ar- teko paktu bat batak bes- teari pelotariak ez ken- tzeko baina sekula ez da jakiten zelan amaitu dai- tekeen. Momentuan zaila da nire ustez.

**- Tirabirak izan dira Asegarcekoekin...**

- Guri kristonak egin dizkigute. Kirol mailan kaltetuak izan gara. Zein- tzuk agintzen duten argi dago. Logroño eta Gastei-

zera haserre bizian joan izan gara askotan; dena beren alde jartzen dute, materiala etab. eta pa- rejak ere beraiek eraba- kitzen dituzte. Arretxeren aurka, esate baterako, bi urtetan behin bakarrik jokatu dut Unanuerekin, beste guztietan Lejardi, Urionaguena edo bi- garren mailako jendeare- kin. Sekula ezin irabazi eta momentu bat heltzen da moskeatu egiten zare- na.

**- Zer deritzozu fron- toiak berdez pintatzea- ri?**

- Berdea zatarragoa da zuzenean ikusteko. Mate- riala ere diferentea izaten da eta horrek betiko ara- zoa dakar: batzuei alde,

beste batzuei kontra. Nik nahiago dut frontoia zu- riz, guk indar gehiagoko pelotak erabiltzen baiti- tugu.

**- Etxanizekin joka- tzen ikusiko zaitugu datorren urteko txapelketan?**

- Nik posible ikusten dut. Orain dela 2 urte ohizko enpresek antola- tutako txapelketa atera genuen baina biok ondo egotea tokatu behar da eta gero enpresek biok batera jartzea. Datorren urtean jendea gehiago nahastuko dela komenta- tzen da baina gero en- presa bakoitzak irabaztea nahiko du. Nik ilusioa daukat Jokinekin jokatu eta irabazteko.

**"Gaur pelotan nork agintzen duen argi dago. Kirol mailan kaltetuak izan gara"**



"Ilusioa daukat Etxanizekin jokatu eta txapelketa irabazteko".

**KARTELDEGIA**

**► Futbola**

**Bergara-Zumaiako**

Lehen errejionala. Larunbata, 17.15. Ipintza.

**Bergara-Burumendi**

Lehen mailako jubenila. Larunbata, 12.00. Ipintza.

**Bergara-Allerru**

2. mailako jubenila. Larunbata, 15.30. Ipintza.

**► Eskubaloia**

**Bergara-Usurbil**

Senior mutilak. Larunbata, 18.00.

**Bergara-Ordizia**

Kadete mutilak. Larunbata, 16.15.

Biak Kiroldegian.

**► Pala txapelketa**

- Gaztelu-Rodriguez / Acedo anaiak (14.00)
  - Arroyo- Inza / Ibarra- Zangitu (14.45)
  - Azkarate-Zabalo / Martin anaiak (15.00)
  - Etxaniz-Etor / Alberdi-Elorza (16.15)
  - Agirrebeña -Ilarduia / Martinez-Otaño (17.00)
  - Etxeberria-Gallastegi / Agirrez.-Murgizu (17.45)
- Larunbatean Osintxuko frontoian.

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

**Tomas Gezalaga**

**ANTZUOLA BERGARA**

• Zoruen kutxilatatu eta barnizaketa •

**AGIRREBEÑA**

**oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria**

**Urteaga, 5 ☎ 76 18 29**

**HARATEGIA- URDAITEGIA**

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta oilazkoak**

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA



## Indixuak Bergaran

**O**in ddala 25 urte, 1970ian, indixuak agertu zien Bergaran. Gustau eñ jakuen herrixa eta ordutik hemen bizi die. Ixa beti kalia dabizten horretakuak die, baña normalian ezteie peligrusuak, fotografixan arku eta fletxa ta guzti agertzen badie be. Taldeko jefia zein dan ezin izan dou jakin...

Aurten, zela mozorrotu asmau ezindda baldin bazabiz, erretraturkueandik ikesi ta kalera eta egualdixak laguntzen ezpadau, taberna barrutik irten barik ibili bihar..., badaezpada katarroik harrapau ez deizuen.

Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Joseba Askasibar, Luis Larrañaga (Kikio), Patxi Igartua (Patxikin).

**Belauniko:** Jose Madariaga (Txikixa), Jose Loizaga (Pepillo).

*Argazkia: Pako Intxorta*

*Testua: Felipe Iñarra*

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
 Koltxoi-denda  
 Orain SORALUZEN

**ORTZI**  
 erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...  
 130 lagunentzako jantokia  
 ☎ 76 22 68 ANGIOZAR

**ZUBIETA**  
 elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
 Kruz Gallastegi, 2 behea  
 ☎ 76 23 48



AROSZTEGIA

**UGARTE**

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa

**Martxoaren 1ean  
INAUGURATUKO DUGU  
arratsaldeko 6etan**

## **Altzarien dekorazio eta erakusketa**

- *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*
- *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*
- *Leiho termoakustikoak*

- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

# Sukaldaritza ikastaroa

### **OGIA ETA BESTE MASA BATZUK NOLA EGIN**

Ogia egitea erraza da eta etxeetako edozein labetan egin dezakegu.

### **GOZOGINTZA**

Gozogintza osasuntsuagoa ezagutuko dugu. Elementu naturalekin eta integralekin, eta gozoari uko egin gabe.

### **JANGAI GORDINAK ETA SALTSAK**

Janari gordinak zein gozoak diren ezagutuko dugu, eta hauekin jateko moduko saltsa batzuk egiten ikasiko dugu.

### **FRIJITUTAKO OLIOARI ALTERNATIBAK**

Frijitutako olioak gorpuzari

ematen diogun pozoi haundienetako bat da. Olio beroarekin prestatu ohi ditugun janari batzuetarako alternatibak topatzen saiatuko gara.

### **ZEREALAK ETA LEKALEAK**

Proteinen oinarria dira. Mota asko ezagutuko ditugu eta nola prestatu ikasiko dugu.

### **BARAZKIAK**

Ortuak gustu ugari eta ezinbesteko elikagai asko eskaintzen dizkigu. Harrituta geratuko gara prestatu ditzakegun konbinaketak ikusita.

### **OSASUNERAKO INFORMAZIOA**

Elikadurak eta osasunak duten zerikusiaz berba egingo dugu.

### **Hizlaria:**

Eneko Landaburu  
Osasunerako dietetan  
aditua eta mediku  
higienista

### **Tokia:**

Bergara

### **Egunak:**

Martxoaren 8tik  
apirilaren 26ra  
asteazkenetan

### **Orduetgia:**

15.00etatik 17.00etara

16.30etatik 20.30etara

### **Argibideak:**

Eroski

Kontsumitzaileen

Gizarte Komitea

**PLAZA MUGATUAK!!**

# JAKINA



**BAINUAK**



**ZERAMIKAK**



**SUKALDEAK**

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko  
behar duzun guztia eskainiko dizun  
**DENDA ESPEZIALIZATUA.**

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den  
**TALDE PROFESIONALA** dugu.

San Lorentzo  
Poligono Industrialia.  
Amilaga, 10 behea.  
BERGARA

**JAKINA**

Telefona: 76 03 30  
Faxe: 76 02 91